



Aunitz euskal herritarrentzat,
oporretara joateko tokia
dira Gaskoiniako Landak
(Okzitania). Duna luzez osatutako
hondartzak, pinudi amaigabeak
barnealderantz, eta herriak baino
kanping gehiago ia. Hegoaldean
Aturriko itsasadarrek markatzen
du Lapurdirekiko muga.
Iparralderantz Arcachongo badia
eta Ferret lurmuturra bezalako
helmuga turistikoak, eta bertan
Bordele eta Girondako itsasadarra.

 JOSU NARBARTE HERNANDEZ



SUTEAK LANDETAN

Gizakiak eraldatutako ekosistema bat, berotze globalaren atakan

Alabaina, 2022ko uztailean beste arrazoi batek ekarri dizkigu Landak hedabideetako lerroburuetara. Bi sute handi gertatu dira, egun gutxi-
ren buruan kalte izugarriak eraginez. Lehena kostan bertan piztu da, La Teste de Buch herrian; bigarrena barnealderantz, Landirasen. Lehen estimazioen arabera, 20.000 hektarea inguru erre dira guztira. Ez zen halakorik gogoratzen 1949ko sarraskiaz geroztik; suak 52.000 hektarea irentsi zituen orduan, horietatik 25.000 pinudiak; 82 lagun hil ziren, eta Bordele errautsek estalita gelditu zen. Berotze globalaren ondorioz, gero eta ohikoagoa izango da sute-arriskua; hortaz, komeni da gizarte gisa ingurunearekin dugun harremanaz hausnartzea, arriskua mugatzen ala hauspotzen ari ote garen jakiteko.

*Landetako Basoak
1,4 milioi hektareako
hedadura du, eta
horien %90 baino
gehiago jabetza
pribatukoa da;
gainazal osoaren
%25 berrehun jaberaren
esku dago soilik*

EZ ZEN BETI BASOA IZAN

Landetan gertatua bere testuinguruan jartzeko, ezinbestekoa da egungo lur-estaldura aztertzen hasia. Frantziako Institutu Geografiko Nazionalak (IGN) emandako datuen arabera, Landetako eta Girondako departamentuen azalera osoaren %45 baino gehiago “basoz” estalita dago baina, datu horren azpian, errealitate deserosoago bat dago. Landetako Basoak 1,4 milioi hektareako hedadura du, eta horien %90 baino gehiago jabetza pribatukoa da; gainazal osoaren %25 berrehun jaberaren esku dago soilik. Eremu zabal hori konifero-plantazio monoespezifikoz estalita dago ia osoki. Itsas pinua (*Pinus pinaster*) da espezie nagusia, eta egur eta paper industriaren merkatuan saltzeko hazten da. Azken urteetan, behin baino gehiago piztu dira plantazio horien kudeaketaren inguruko



Landetako basoa,
itsas-pinuen plantazio
monoespezifikoz osatua.



Landetako artzainak
XIX. mende bukaeran.

WIKIMEDIA COMMONS

polemikak, besteak beste, glifosatoaren erabilerari lotuta.

Baina ez zen beti horrela izan. XIX. mendera arte, basoak puntu jakin batzuetan baino ez zeuden: Lacanau, Arcaishon, Biscarròssa eta Marensin inguruetan batik bat. Haatik, lurraldearen zatirik handiena paduraz eta zingiraz osatuta zegoen. Bertan, hezetasun-mailaren arabera, zuhaixkaz eta ihiz osatutako landaretza zen nagusi: txilarrak, erratzak, oteak, iratzeak eta abar. Herri-lurrak ziren gehienak, hau da, komunitate bakoitzeko bizilagunek libreki ustia zitzaketen, kolektiboki xedatutako araudi batzuen baitan.

Laborantzarako lur desegokiak izanik, artzaintza zen eskualdeko biztanleen ogibide nagusia. Artzainak *airial* izeneko borda txikietan babesten ziren, eta bertatik artaldeak landara eramateko, zingirak saihesteko egurrezko zango handien gainean ibiliz. Artzain hauek bizimodu nomada eta bakartia zuten, kultura bereizgarri baten lekuko.

*XIX. mendera arte,
Landetan basoak
puntu jakin batzuetan
baino ez zeuden.
Lurraldearen zatirik
handiena paduraz
eta zingiraz osatuta
zegoen eta herri-lurrak
ziren gehienak*

ESTATU LIBERALA, TOKIKO KOMUNITATEEN AURKA

XVIII. mendean, ilustrazioaren ideiak hedatzearekin batera, gizartea, ekonomia eta laborantza modu *arrazional*ean birformulatzeko aldarriak nagusitu ziren Europa osoan, baina bereziki Frantzian. Horren adibide da, adibidez, François Quesnayk sortutako eskola fisiokratiakoa. Landatarren bizimodu tradizionala, noski, ez zen egokitzen Ilustrazioak proposatutako parametro horietan, eta horrenbestez exotikotzat eta are basatitzat jo zuten. Irudi hori XIX. mendean areagotu zen, herri-lurren kudeaketa kolektiboan eta estentsiboan oinarritutako ekonomia aurrerapenaren eta arrazoia- ren aurkakotzat jotzen baitzen.

Illo honetan, François Flamichon geografoak honela deskribatu zituen Landak 1815ean: "Basamortu zabal horietan sartuta, begia harrituta gelditzen da ustekabeko ikuspegi uniformearen aurrean, 50 legoara Pirinioen punta ikusten duelarik.




AP

(...) Ikusleak ez du bereizten lurraldearen ñabardura txikienik ere, alde guztietatik inguratzen duen paisaiaren luze-zabal osoan. Han eta hemen sakabanatutako pinudi ñimiñoak ikusten dira. (...) Ez dago begiarentzat gauza aspergarriago, zaporerik gabekoagorik, Bordeleko Landen itxura baino". Irudi bera eman zuen Jean-Baptiste Bory de Saint-Vincent naturalista eta politikariak, 1826an, Landak "basamortu" gisa definitzean. Ondorengo hamarkadetan ohikoa izan zen Landak urruneko paraje hutsekin alderatzea: Afrikako zein Missouriko sabanekin, Siberiako taigarekin, are Sahararekin.

Aurrerapenaren misiolariantzat, hurrengo pausoak logikoa zirudien: beharrezkoa zen lurralde honetara "zibilizazioa" eramatea, Estatu Batuak Ipar Amerika "kolonizatzen" ari ziren bezalaxe (Henry Ribadieu, 1859). Zenbait inbertsorek hartu zuten ardura hori, Landetan lursailak erosi eta, drainatze-proiektuen bidez, arroz edo tabako plantazioak sortzen saiatuz; baina, hasiera batean behintzat, egitasmo horiek ez zuten arrakastarik izan, tokiko komunitateen oposizioarekin topo egin baitzuten.

*Herri-lurrak desagertu
ondoren, tokiko
komunitateek
bizimodu tradizionala
galdu zuten eta
XIX. mendearen
erdialdetik, Landetako
biztanleriak behera
egin zuen eta
nabarmen zahartu zen*

Testuinguru horretan ulertu behar dira garai hartan Landen ustiaketa "arrazionalizatzeko" martxan paratu zen estrategia politikoa. Prozesua XVIII. mende bukaeran hasi zen, Frantziar Iraultzak abiatutako Estatu liberalaren eraikuntzaren baitan; ondorengo hamarkadetan, herri-lurrak zatikatzeko eta pribatizatzeko dekretuak eman ziren, eta Landetan zegoen, hain zuzen ere, Estatu osoko herri-lur kopururik handiena. Yzarn de Freissinet nobleak argi eta garbi azaldu zuen 1837an: "Herri-lurrek aurrerapena oztopatzen dute, ardi bat hazteko behar den lurra erabil bailiteke familia oso bat elikatzeke. (...) Uler dezakegu gure ate aurrean dugula lurralde birjin bat, eta enpresa zoragarrien abiapuntu bilaka daitekeela, espekulazailerek ongi ezagutzen eta preziatzen dituzten lautada hauetan inbertituko baitute beren dirua". Beste hitz batzuetan esanda, Estatu liberalak ekarri zuen Estatu nazionala, eta ideologia berriarentzat hura zen, tokiko komunitateen gaintetik, herriaren interesak zehazteko eta lurraldearen antolakuntza merkatu-askatasunaren ikuspegitik arautzeko eskumena zuen entitate bakarra.



Landetako plantazio-hedaduraren bilakaera, 1750-1936.

BARNE-KOLONIZAZIOA

Hortaz, XIX. mendearen erdialdean Frantziako Estatuak benetako barne-kolonizazio bat abiatu zuen Landetan. 1849an, Jules Chambrelent ingeniariak 400 hektareako lursail bat erosi zuen Cestàs herrian. Bertan, zingirak drainatzeko kanal-sare ortogonal bat diseinatu zuen, segidan pinuak landatzeko. Esperimentuak arrakasta izan zuen, eta Chambrelentek 1855eko Erakusketan Unibertsalean erakutsi zituen bere emaitzak.

Napoleon III. enperadoreak interes handia erakutsi zuen haren egitasmoan, eta urte gutxiren buruan lege berezi bat sustatu zuen drainatzeak Landen hedadura osora zabaltzeko: 1857ko Legea, Gaskoiniako Landen Saneamenduari eta Laborantzari buruzkoa. Testu horrek hiru ideia nagusi jaso zituen. Lehenik, udalerrri guztiek beren herri-lurrak drainatzeko betebeharra izango zuten, zanga-sistemen bidez, maila freatikoa jaitsarazi eta pinuak landatu ahal izateko. Bigarrenik, horrela drainatutako lurak lursail txikietan banatu eta enkantean saldu beharko zituzten, hamabi urteren buruan gehienez. Hirugarrenik, erosleek ardura izango zen zuhaitz-landaketak egitea eta ustiatzea.

Ondorioz, urte gutxiren buruan Landen itxura errotik aldatu zen: herri-lurrez osatutako zingira zabalen ordeztu, plantazio monoespezifikoz osatutako baso handi bat agertu zen, Estatu liberalaren eta kapitalismo industrialaren interesei erantzunez. Azken landa-zatiak 1914an saldu ziren. Lurjabe berriek pinu-plantazioak hobetsi zituzten, bertatik erretxina erauzi eta garatzen ari zen industria kimikoa hornitzeko.

*Pinu-plantazioak
berrezarri eta hedatu
egin dira, Europa
mendebaldeko baso
industrial handiena
osatzeraino*

Herri-lurrak desagertuta, tokiko komunitateek beren bizimodu tradizionala galdu zuten. XIX. mendearen erdialdetik, Landetako biztanleriak behera egin zuen eta nabarmen zahartu zen, gazte ugariak Estatuko hirigune nagusietara migratu baitzuten. Bertan gelditu zirenek ez zuten plantazioetan soldatapean lanean hastea beste aukerarik izan. Artzain izatetik, laborantzako proletario izatera pasa ziren. Hasieran izan ziren zenbait errebolta-saiakera: plantazioen erreketak eta grebak ohikoak izan ziren, bereziki, 1930ko hamarkadara arte. Baina, pixkanaka, Landetako erretxina lehiakortasuna galtzen joan zen lan-esku merkeagoetako inportazioen artean, eta plantazio asko bertan behera gelditu ziren. Horrela piztu zen 1949ko sute izugarria, Frantziako Estatuaren historiako hilgarrienetako bat.

Ordutik, pinu-plantazioak berrezarri eta hedatu egin dira, Europa mendebaldeko baso industrial handiena osatze-

raino. Erretxina baino, egurra eta papera ekoizten dira orain, baina emaitza berbera da: ekosistemen pobretzea eta biodibertsitatearen galera, alde batetik, eta tokiko komunitateen desagertzea, bestetik. XX. mende erdialdetik aurrera biztanleria berriro hazten hasi bada ere, hazkunde hori turismoari lotuta dago batik bat, eta kostaldeko opor-guneetan kontzentratu da. ●

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com